

GIPUZKOAKO BAZKUNDEAK BRASILERA JOATEKO MISIO KOMERTZIALA ANTOLATU DU

Donostia - 2016ko Maiatzaren 13a - Brasilerako joateko misio komertziala Gipuzkoako Bazkondeak antolatzen du, Arabako eta Bilboko Ganbarekin batera eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Garapen eta Lehiakortasun Sailaren laguntzarekin.

Misioa maiatzaren 16a eta 20a bitartean egingo da eta 16 enpresek parte hartuko dute: 7 gipuzkoarrek, 7 bizkaitarrek eta 2 arabarrek. Sektorerei dagokionez, makina-erreminta, eraikuntzako materiala, instalazio elektrikoak, ingenieria, automozioa, industriako produktuak, ...

Misio honen helburu nagusia Brasilgo enprekin merkatuaren bilakaera nolakoa izaten ari den egiaztatzea izango da (azken urtean beherakada handia izan duen merkata da eta Brasilgoa), eta bide batez merkatu honetan interesa duten euskal enpresen harreman komertzialak sustatzeko bide berriak eraikitzea.

Brasil

Brasil munduko bostgarren herrialde handiena da Errusia, Canada, Txina eta EEBBen atzetik. Herrialde honetako erdi mailako biztanleria hazten ari da, C klasea bezala ezagutzen dena, eta biztanleri mota hau biztanlegoaren erdia da dagoneko, kontsumo ondasunen sektorerei aukera handiak eskaintzen dielarik, herrialdea bisitatuko duten gure enpresen sektorerei hain zuzen ere. Une honetan Brasil krisi politiko garrantzitsu batean aurrean dago eta mundu mailako erronka garrantzitsu batean aurrean ere, datorren udan egingo diren Rio de Janeiroko olinpiar jokuen antolaketan, hain zuzen ere.

Esportazioei dagokionez, 2015ean Euskal Autonomi Erkidegoak 337 miloi euro esportatu zituen Brasilerako, honek 2014ean egindako operazioen %21eko jaitsiera suposatzen duelarik. Euskal Autonomi Erkidegoak Brasilerako esportatzen dituen produktu nagusienak honako hauek dira:

ESPORTATUTAKO PRODUKTUAK	Miloi €	guztiaren %
GALDAKETA eta MAKINAK	84	%25
AIREONTZIAK, ESPAZIOKO IBILGAILUAK ETA ZATIAK	51	%15,2
MAKINA GAILUAK eta GAILU ELEKTRIKOAK	47	%14,2
IBILGAILUAK eta BURDIN BIDEENTZAT GAILUAK	43	%13
GALDAKETA, BURNI edo ALTZAIRU MANUFATURAK	21	%6

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Irune Bengoetxea

ibengoetxea@camaragipuzkoa.com

943 000 310 / 688884347